



Gipuzkoako Absoluto Txapelketa 2024

Txapelketaren oinarriak

1. Txapelketa urriaren 12, 19 eta 26an eta azaroaren 2, 9, 16 eta 23an jokatu da.
2. Txapelketa honela jokatu da: 15 jokalar baino gehiago badaude, sistema suitzarraren bidez, 7 txandatan; 9 eta 15 jokalar artean badaude, sistemaren suitzarraren bidez, 5 txandatan; 9 jokalar baino gutxiago badaude, liga sistemaren bidez (Round Robin).
3. GXFn federatutako Lehen mailako edo Lehen mailako jokalar guztiek parte hartu ahalko dute txapelketan.
4. Elo FIDE sistemako 1900 puntura iristen diren edo puntu horiek gainditzen dituzten GXFko jokalariek automatikoki pasako dira Lehen mailako kategoriara, beheagoko kategoria batekoak badira. Elo FIDE sistemako 2000 puntura iristen diren edo puntu horiek gainditzen dituzten GXFko jokalariek automatikoki pasako dira Lehen mailako kategoriara, beheagoko kategoria batekoak badira.
5. Txapelketaren joko-erritmoari dagozkien FIDEko xake-arauak aplikatu dira.
6. Txapelketa hasten den egunean indarrean dagoen Gipuzkoako Banakako Txapelketen Araudia aplikatu da oso-osorik.
7. Partidak txapelketa antolatzeko baimendutako klubetan jokatu dira lehen aipatutako egunetan, 16:00etan.
8. Joko-erritmoa ordu 1 eta 30 minutukoa izango da banakako kronoan, eta 30 segundo gehituko zaizkio jokaldi bakoitzeko, lehen jokalditik hasita.
9. Ordulariak partida hasteko adierazitako orduan jarriko dira martxan, eta hortik ordu erdira taulara agertu ez den jokalariek partida galduko du ez bertaratzeagatik.



10. Txapelketa sistema suitzarraren bidez jokutzen bada, birritan ez bertaratzeak, justifikatuak izan ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Epaileak hautazkoa izango du lehen txandara falta den jokalaria kanporatzea. Jokalariak epaileari txanda argitaratu baino lehen ohartarazten badio bertaratuko ez dela, ez da ez bertaratutzat hartuko.

11. Txapelketa Liga sistemaren bidez jokutzen bada (Round Robin), birritan ez bertaratzeak, justifikatuak izan ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Jokalari batek txapelketako partiden erdia baino gutxiago jokutzen badu, sailkapena egiterako garaian emaitza guztiak baliogabetuko zaizkio.

12. Txapelketa sistema suitzarraren bidez egiten bada, puntuaketan berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:
 - a) Bucholz, emaitzarik txarra kenduta
 - b) Bucholz, guztira
 - c) Sonnenborn-Berger
 - d) Garaipen-kopurua
 - e) Zozketa

Bucholz kalkulatzeko, jokatu gabeko partidarik egonez gero, erabilitako programak aplikatutako zuzenketaren bat egingo da, epailearen irizpidearen arabera.

13. Txapelketa liga sistemaren bidez egiten bada (Round Robin), berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:
 - a) Sonnenborn-Berger
 - b) Berdintutakoen arteko emaitza partikularra
 - c) Garaipen-kopurua (ez bertaratzeagatik irabazitakoak barne)
 - d) Txapelketako pieza beltzen kopurua (jokatu gabeko partidak barne)
 - e) Berdintutakoen arteko pieza beltzen kopurua
 - f) Zozketa



Berdinketa hausteko sistema bat aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden jokalarien kopurua gutxitzen bada, berdinketa hausteko sistemak berriro aplikatuko dira hasieratik.

14. Jokalariren batek partidaren bat aurreratzea eskatzen badu, honako arau hauei jarraituko zaie:
- Partida egun horretan jokatu ezin duenak partida aurreratzea erabaki dezake. Horretarako, txapelketako epaileari jakinaraziko dio, eta epaileak partida aurreratzeko baimena eman beharko du.
 - Partida aurreratu duen jokalaria aurkariarekin ados jarri behar du partida zein egun, ordu eta lekutan jokatuko den zehazteko, txapelketako epaileari jakinaraziko dio eta emaitza eman beharko dio beranduenez partida aurreratu gabe jokatu behar zen ordurako eta egunerako; hala egin ezean, partida galdu egingo du, ez bertaratzeagatik.
 - Partida aurreratu nahi duen jokalaria ez bada aurkariarekin ados jartzen, epaileak ez du aurreratzeko baimenik emango, eta partida hasiera batean adierazitako egunean eta orduan jokatuko da.
 - Azken txandan ez da partidak aurreratzeko baimenik emango, guztiz justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Epaileak erabakiko du partida aurreratzeko baimena ematen duen ala ez.
15. Txapelketa denek denen aurkako sistemaren bidez jokatzen bada (Round Robin), epaileak partida bat aurreikusitako eguna baino beranduago jokatze baimena eman ahal izango du, betiere bi jokalaria ados badaude eta horrek txapelketaren garapena oztopatzen ez badu; inolaz ere ezin izango da azken txandan egin.

FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DE AJEDREZ
GIPUZKOAKO XAKE FEDERAZIOA
Anoeta Pasealekua 5, 11. saila – 20014 DONOSTIA
Telefono-zenbakia: 943 47 46 04
e-maila: xake@fgajedrez.org - Webgunea: www.fgajedrez.org



16. Jokalariak ezingo dute joko-aretoetik atera beren partida jokatzeko ari diren bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenarekin ez bada. Hark, txandaren egoera orokorra edo irteteko beste baimen batzuk baloratu ondoren, ateratzeko baimena ematen dieten ala ez erabakiko du. Jokalariak ezingo dute analisi-gelara sartu partidak abian diren bitartean.
17. Sariak banaezinak izango dira. Jokalariak sari bakarra jaso dezakete.
18. Izendatu eta ordaindu behar dituela uste duen txapelketa-epaileak izendatu eta ordainduko ditu GXFk.
19. Sariak:
 - Gutxienez, garaikur bana bi kategorietako (Lehentasunezkoa eta Lehengo) lehen bi sailkatuentzat. GXFko Zuzendaritza
 - Batzordeak erabakiko du ea dirutan saririk emango den eta zenbat.
20. Lehen mailako jokalariek honako taula honen arabera igo ahal izango dute Lehentasunezko mailara:
 - Lehen mailako 10 jokalaririk arte: lehenengo biak igo dira.
 - Lehen mailako 11 eta 20 jokalaririk artean: lehenengo hiruak igo dira.
 - Lehen mailako 21 eta 30 jokalaririk artean: lehenengo lauak igo dira. Eta horrela hurrenez hurren, EXFk kontrakoa arautu ezean.
21. Txapelketak Elo FIDEn zenbatzeko balioko du.
22. Txapelketan parte hartzen dutenek baimena ematen dute antolatzaileek ekitaldia behar bezala zabalteko egokitzat jotzen dituzten komunikabideetan beren datu pertsonalak argitaratzeko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, etab.).
23. Txapelketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak onartzea eta betetzea.